
- *Nous devons travailler demain matin pour que tout soit terminé la semaine prochaine.*

- *Il, elle ne veut pas venir avec nous ? D'accord, qu'il, elle reste tout(e) seul(e) à la maison.*

- *Il, elle travaille à toute allure pour sortir le plus tôt possible.*

- *Papa ferma bien la porte pour que les enfants ne sortent pas, mais ceux-ci s'échappèrent par la fenêtre.*

- *Tu devais surveiller les chèvres pour ne pas qu'elles mangent (mangeassent !) les légumes.*

#### Frantsesetik euskarara :

- *Il faut que tu t'entraînes (trebatu) beaucoup pour être un bon pelotari.*

- *Qu'il fasse ce qu'il veut, cela m'est égal.*

- *Pour acheter cette maison, il te faut beaucoup d'argent.*

- **Anitz trebatu behar zara, pilotari on bat izateko.**

- **Nahi duena egin dezala, berdin zait.**

- **Etxe horren erosteko, diru anitz behar duzu.**

#### Esanaldiak iraganean ezar itzazu Mettez les phrases au passé :

- **Peio deitu dut gurekin Bilbora joan dadin.**

- **Eskatzen dizuet etortzeko, elgarrekin lan egin dezagun.**

- **Hurrek eskatu digute Biarritzera joatea itsas-erakustokia bisita dezaten.**

- **Peio deitu nuen gurekin Bilbora joan zedin.**

- **Eskatzen nizuen etortzeko elgarrekin lan egin genezan.**

- **Hurrek eskatu ziguten Biarritzera joatea itsas-erakustokia bisita zezaten.**

-----  
89 laurogeita bederatzi

### Hogeita zortzigarren ikasgaia

-----

#### Hogeita zazpigarren ikasgaiaren berrikuspena

##### Subjuntiboa, iraganean

Ainsi que nous l'avons dit la semaine dernière, dans le langage courant, on n'emploie pas beaucoup ce mode, notamment au passé. Cependant il est important de connaître ces formes :

Izan		Ukan
Eskatu zuen ni etor nendin	nik liburua irakur nezan	liburuak irakur nitzan
Xabi etor zedin	hark irakur zezan	zitzan
gu etor gintezen	guk irakur genezan	genitzan
zu etor zintezen	zuk irakur zenezan	zenitzan
zuek etor zintezten	zuek irakur zenezaten	
zenitzaten		
Xabi eta Patxi etor zitezen	haiek irakur zezaten	zitzaten

-----  
Et voici la dernière tournure que nous allons aborder cette année. Elle est souvent utilisée, en basque comme en français : Si j'avais su ( « si j'aurais su » disait le Petit Gibus dans le film: « La guerre des boutons »

*Si j'avais su... Jakin banu...*

#### Nire amak baleki *Si ma mère le savait (J. M Iparragirre 1820-1881)*

Hola deitzen da Jose Maria Iparragirrek ondu zuen kantua. Kantari, olerkari, poète  
gitarra joile hori Euskal Herri guzian ezagutua da. Bere kantu famatuena da: « Gernikako arbola » Alde batetik bestera, maiz errebesteratua izan zen. Preso sartu zutelarik, « Nire amak baleki » kantua ondu zuen.

...Giltzapean sartu naute poliki poliki.  
Negar egingo luke

*C'est le titre d'une des chansons que J. M Iparragirre avait composée. Ce chanteur, guitariste est connu dans tout le Pays Basque. Sa chanson la plus célèbre est « Gernikako arbola ». D'un côté comme de l'autre, il était souvent expulsé. Lorsqu'on l'emmena en prison il composa la chanson « Nire amak baleki »*

... On m'a emprisonné tout doucement..  
Ma mère pleurerait

nire amak baleki...

*si elle le savait...*

**Idoia Lopez Riaño, preso politikoak, Iparragirren kantua gogoan, olerki berri bat idatzi du. Skunk taldearen musikarekin entzun dezakezue emankizunaren bukaeran. Entzun dezagun orai lehen zatia.**

*Idoia Lopez Riaño, prisonnière politique a écrit un poème, en souvenir de la chanson d'Iparragirre. Vous pouvez l'écouter en fin d'émission, interprété par le groupe Skunk. Écoutons maintenant la première partie.*

90 laurogeita hamar

**Bai baleki** *Oui, si elle le savait*

**Bai baleki negar egingo luke**

*Ou, si elle le savait elle pleurerait.*

**Non sartu naute, poliki, poliki  
Zuk ere sartu ninduzun, poliki, poliki  
Aitak ere sartu ninduen, poliki, poliki  
doucement**

*Où m'a t'on enfermée, tout doucement  
Toi aussi tu m'avais enfermée, tout doucement  
Papa aussi m'avait enfermée, tout*

**Denek sartu ninduten  
Eta neu ere sartu egin nintzen  
Bai baleki negar egingo luke**

*Tous m'avaient enfermée  
Moi même je m'étais enfermée  
Oui, si elle le savait, elle pleurerait*

**Bainan negar eginen zenuke  
Zer besterik egin zenezake  
d'autre**

*Mais tu pleurerais  
Que pourrais-tu faire*

**Negar eginen zenuke  
Ama non eta nola nabilen  
baldin bazaneki  
Bai baleki negar egingo luke**

*Tu pleurerais  
Maman si tu savais  
où et comment je vis  
Oui, si elle le savait elle pleurerait*

**Itzul gaiten... gramatikara** *Revenons...à la grammaire.*  
**zazpi eta zortzigarren ikasgaietan, nahi nuke forma erabili dugu.**

**Nahi nuke** *je voudrais*

*et les autres personnes ?*

**Nik nahi nuke**      **zuk nahi zenuke**

**Amak nahi luke**      **zuek nahi zenukete**

**guk nahi genuke**      **haiek nahi lukete**

Ce mode est appelé conditionnel car l'action est soumise à une condition : **baldintza** :

**negar egingo luke nire amak baleki** *ma mère pleurerait si elle le savait*

**nire amak balaki** Il s'agit du verbe **jakin** qui est un verbe fort. Nous l'avons employé dans la leçon 6, **seigarren ikasgaietan** :

**indikatioa**

**baldintza**

**badakit** *je le sais*

**baneki** *si je le savais*

**badaki** *il, elle le sait*

**baleki** *s'il, elle le savait*

**badakigu**

**bageneki**

**badakizu**

**bazeneki**

**badakizue**

**bazenekite**

**badakite**

**balekite**

---

## Ariketak

### 1. Esanaldiak osa itzazu, adibidez : nire amak baleki negar egingo (eginen) luke

Aitak eta amak... Aita eta amak balekitez negar egingo lukete  
Nik... Nik baneki negar egingo nuke  
Guk...Guk bageneki negar egingen genuke  
91 laurogeita bat

Zuk... Zuk bazeneki negar egingen zenuke  
Zuek... Zuek bazenekitez negar egingen zenukete

### 2. Indikatibotik baldintzara ezar ezazu, adibidez :

Nahi dut *je veux* => Nahi nuke *je voudrais*

Behar dugu *nous devons* => behar genuke *nous devrions*

Joan behar duzue lehen bai lehen => Joan behar zenukete lehen bai lehen.

Haurrek hobeki ikasi behar dute => Haurrek hobeki ikasi behar lukete

Goizik jeiki behar dut => Goizik jeiki behar nuke

Nahi dugu bakean bizi => Nahi genuke bakean bizi

Nahi duzu gurekin etorri ? => Nahi zenuke gurekin etorri ?

### 3. Baldintzazko esanaldi hauek itzul itzazu :

Joan behar zenukete lehen bai lehen.

*Vous devriez partir le plus tôt possible.*

Haurrek hobeki ikasi behar lukete.

*Les enfants devraient apprendre mieux.*

Goizik jeiki behar nuke.

*Il faudrait que je me lève tôt.*

Nahi genuke bakean bizi

*Nous voudrions vivre en paix.*

Nahi zenuke gurekin etorri ?

*Tu voudrais venir avec nous ?*

### 4. Esanaldiak frantsesetik euskarara itzul izazu :

-*Je voudrais aller à Bilbo voir le musée Guggenheim*

-Bilbora joan nahi nuke Guggenheim erakustokiaren ikustera.

-*Tu devrais parler plus fort (gorago), je ne t'entends pas.*

- Gorago mintzatu behar zenuke, ez zaitut entzuten.

-*Tu voudrais aller jouer avec tes copains? Tout d'abord, fais tes devoirs.* zenuke ? Lehenik eskolako ariketak

- Zure lagunekin jostatzera joan nahi egin itzazu.

-*Il faudrait que tu viennes avec moi . Je ne sais pas où habite ton copain.*

- Nirekin etorri behar zenuke. Ez dakit non bizi den zure laguna.

---

## Hogeita bederatzigarren ikasgaia

---

**Gaur hasten dugu zortzigarren eta azken hilabetea.** *Aujourd'hui nous commençons le 8ième et dernier mois.*

---

### Hogeita zortzigarren ikasgaiaren berrikuspena

#### Baldintza *le conditionnel*

Dans la phrase au conditionnel, il y a en basque comme en français, deux propositions, **bi perpaus** : **Perpaus nagusia**, la préposition principale : **nigar egingo luke** *elle pleurerait* eta **meneko perpausa**, la proposition subordonnée : **nire amak balaki** *si ma mère le savait*.

Pour le moment, nous avons employé le verbe **jakin** dans la subordonnée en basque.

**Jakin**, nous l'avons dit, est un verbe fort, **aditz trinkoa**, c'est à dire qu'on peut l'employer sans auxiliaire :

<b>baneki</b> <i>si je le savais</i>	<b>bazeneki</b> <i>si tu le savais</i>
<b>baleki</b> <i>s'il, elle le savait</i>	<b>bazenekite</b> <i>si vous le saviez</i>
<b>bageneki</b> <i>si nous le savions</i>	<b>balekite</b> <i>s'ils, elles le savaient</i>

---

#### Baldintzazko esanaldia : la phrase conditionnelle

##### 1. Ukan aditzarekin

On peut, bien sûr, employer le verbe **jakin** avec son auxiliaire **ukan** : **jakin banu** *si j'avais su*.  
Voyons ce que devient l'auxiliaire **ukan** lorsqu'il exprime une condition :

<b>dirua banu</b> <i>si j'avais de l'argent</i>	<b>dirua bagenu</b> <i>si nous avions de l'argent</i>
<b>ongi ikasten bazenu</b> <i>si tu apprenais bien</i>	<b>ongi ikasten bazenute</b> <i>si vous appreniez bien</i>
<b>egia erran balu</b> <i>s'il, elle avait dit la vérité</i>	<b>egia erran balute</b> <i>s'ils, elles avaient dit la vérité</i>

#### Oharrak :

. L'auxiliaire **ukan** exprimant une condition, **baldintza**, porte le suffixe **ba** qui correspond à la conjonction *si* en français.

**baneki** *si je savais*. **banu** *si j'avais*    **bageneki** *si nous savions*    **bagenu** *si nous avions...*

. Le verbe de la principale est au conditionnel en français. Ce verbe exprime une action soumise à la condition émise dans la subordonnée, il exprime la conséquence **ondorioa** :

<b><u>baldintza</u></b> : <b>nire amak baleki</b> <i>si ma mère le savait</i>	<b><u>ondorioa</u></b> : <b>negar egingo luke.</b> <i>elle pleurerait</i>
<b>dirua banu =&gt;</b> <i>si j'avais de l'argent</i>	<b>bidaia luzea eginen nuke.</b> <i>je ferais un long voyage</i>

Vous pouvez remarquer la concordance : **banu => nuke. balu => luke**

93 laurogeita hiru

### Ariketak

1. Compléter les phrases suivantes en changeant chaque fois de personne :

(hark) dirua... balu                      bidaia luzea eginen... luke  
(guk) dirua... bagenu,                      bidaia luzea eginen... genuke  
(zuk) dirua... bazenu,                      bidaia luzea eginen... zenuke  
(zuek) dirua... bazenu,                      bidaia luzea eginen... zenukete  
(haiek) dirua... balute,                      bidaia luzea eginen... lukete

2. Dans ces phrases, le COD dans les deux propositions est au singulier : **dirua, bidaia.**

Que devient le verbe, si le COD est au pluriel ? Vous devinez, n'est-ce pas ?

**adibidez :**

**gerezi horiek biltzen... banitu, ez nituzke denak janen.**  
*si je cueillais ces cerises, je ne les mangerais pas toutes.*

C'est l'infixe **it** qui exprime le pluriel. Le verbe de la principale se termine par **zke, nituzke**

Reprenez ces phrases en changeant chaque fois de personne :

(hark) gereziak biltzen...balitu,                      ez... lituzke denak janen  
(guk) gereziak biltzen...bagenu,                      ez... genituzke denak janen  
(zuk) gereziak biltzen...bazenu,                      ez ... zenituzke denak janen  
(zuek) gereziak biltzen...bazenu,                      ez... zenituzkete denak janen  
(haiek) gereziak biltzen... balituzte,                      ez... lituzkete denak janen

( Attention, sujet et COD au pluriel : **zuek gereziak=> bazenituzte=> zenituzkete**  
**haiek gereziak=> balituzte => lituzkete**  
terminaison te

**Uf, zer buru haustea !!!**

**alta, logikoa da, ez ?** *pourtant, c'est logique; n'est-ce pas ?*

**Helduden astean , izan aditza erabiliko dugu balditza moduan.** *La semaine prochaine, nous allons employer le verbe izan au conditionnel.*

**Eta orain ixtorioño bat kondatuko dizuegu. Ea ulertzen duzuen :** *Et maintenant, nous allons vous raconter une petite histoire. Voyons si vous la comprenez.*

**Pernando amezketarra, egia ala alegia, réalité ou légende**

**egia :** Pernando, Amezketako bertsulari famatua (1790- 1823)

**alegia :** Kasik Euskal Herri guzian, ahoz aho, Pernandoren ateraldi eta ibilerak kondatzen dira.

**Balentria guzi horiek ez daitezke bereak izan !** **Hola sortzen dira, dudarik gabe, herriko ipuinak.**

*La réalité: Pernando, célèbre bertsulari du village d' Amezketarra, en Gipuzkoa ( 1790- 1823 )*

*La légende : Dans presque tout le Pays Basque, de bouche à oreille ,on raconte les réparties et les aventures de Pernando.*

*Tous ces exploits ne peuvent pas être de lui ! C'est ainsi que naissent, sans doute, les contes populaires.*

Egun batez Fernando ohartu zen  
Erretoraren\* etxean bazkari handi bat  
prestatzen ari zirela.  
« To, aukera\*ona ongi jateko ! »  
pentsatu zuen bere baitan.  
Eguerditan bazoan apeztegi\* aldera, eta etxeko  
leiho ondotik pasatzean, erran zuen:  
« Egun on, Jaun Erretora eta konpañia, on  
dagizuela !  
- Horra gure Fernando, erantzun zion apezak.  
Sar zaitetz. Egun zer kondaduko diguzu ?  
- Ah, berri txar bat.  
- Ea zer den ?  
- Auzoko baserrian xerri batek hamabi ume  
ukan ditu.  
- Bainan, Fernando, berri ona da hori !  
- Ez, hamabi ume dira eta xerriak hamaika  
errape\* ditu.  
- Ah, zure kezka da : hamabigarren xerri-  
kumeak zer eginen du ?  
- Bai, horixe. Eginen du nik egiten dudana :  
Zuek jaten eta nik zueri begiratzen ! »  
Denak irriz hasi ziren.  
- Fernando, urde sanfreta ! Jar zaitetz,  
gurekin bazkalduko duzu.  
- Milesker Jaun Erretora, Jaungoikoak  
ordainduko dizu ! »

*Un jour Fernando se rendit compte que chez le  
curé on était en train de préparer un grand  
repas.  
« Tiens, voilà une bonne occasion pour bien  
manger » se dit-il.  
A midi, il alla vers le presbytère et en passant  
devant la fenêtre, il dit :  
« Bonjour Monsieur le Curé et la compagnie,  
bon appétit !  
- Voici notre Fernando, répondit le curé, entre,  
qu'as-tu à nous raconter aujourd'hui ?  
- Ah, une mauvaise nouvelle.  
- Voyons ce que c'est ?  
- Dans la ferme voisine une truie a eu douze  
petits.  
- Mais c'est une bonne nouvelle !  
- Non, il y a douze petits et la truie a onze  
mamelles.  
- Ah, tu es inquiet, que va faire le douzième  
petit ?  
- He oui. Il va faire comme moi : Vous, vous  
manger et moi je vous regarde. »  
Tous se mirent à rire.  
- Fernando, espèce de sacripan. Assieds-toi,  
tu vas déjeuner avec nous.  
- Merci Monsieur le Curé, le Bon Dieu vous  
le rendra. »*

-----  
Ce texte ne comporte pas de structures que nous n'ayions pas utilisées.

#### **Hiztegia** *le vocabulaire*

- . umea, kumea est le petit d'un animal, mais aussi d'un humain :  
xerri-kumea, gatukumea, xorikumea...
- . erretora vient du latin *rector*, il désigne en basque *le curé...* mais aussi *le recteur*.
- . aukera *l'occasion*. Synonyme : **parada**.
- . apeztegi *le prêtre* apeztegia *la maison du prêtre, le presbytère*.
- . errapea *la mamelle*.

#### **Gramatika**

Aditzak : iraganean : ohartu zen *il remarqua, il se rendit compte.*

erran zuen *il dit.*

erantzun zion *il lui répondit*

Aditza eta konpletiboa : Ohartu zen bazkaria prestatzen ari zirela

*il se rendit compte que l'on préparait...*

Aditza eta erlatiboa : Eginen du nik egiten dudana *il va faire ce que je fais.*

Nor nori nork :            **Zer kondatuko diguzu ?** *Que vas-tu nous raconter ?*

95 laurogeita hamabost

### Hogeita hamargarren ikasgaia

---

#### Hogeita bederatzigarren ikasgaiaren berrikuspena

##### Baldintzazko esanaldia ukan aditzarekin

Baldintza		Ondorioa	
Singularrean	Pluralean	Singularrean	Pluralean
ahal banu	hegalak ban <u>itu</u>	oilaskoa janen nuke	oilaskoak janen <u>nituzke</u> ahal
balu	hegalak bal <u>itu</u>	oilaskoa janen luke	oilaskoak janen <u>lituzke</u>
ahal bagenu	hegalak bagen <u>itu</u>	oilaskoa janen genuke	oilaskoak janen <u>genituzke</u>
ahal bazenu	hegalak bazen <u>itu</u>	oilaskoa janen zenuke	oilaskoak janen <u>zenituzke</u>
ahal bazenute	hegalak bazen <u>ituzte</u>	oilaskoa janen zenukete	oilaskoak janen <u>zenituzkete</u>
ahal balute	hegalak bal <u>ituzte</u>	oilaskoa janen lukete	oilaskoak janen <u>lituzkete</u>

Notez bien :  
La formation du pluriel

Sujets **nik, hark, guk zuk** et COD au pluriel :  
dans la subordonnée, infixe **it** : **banitu, balitu, bagenitu, bazenitu**  
dans la principale, terminaison **ituzke**: **nituzke, lituzke, genituzke, zenituzke.**

Sujets au pluriel **zuek, haiek**, et COD au pluriel :  
dans la subordonnée, terminaison **ituzte**: **bazenituzte, balituzte**  
dans la principale, terminaison **ituzkete**: **zenituzkete, lituzkete**

-  
**argi ote da ?** *est-ce clair ? Hum....*

---

#### Gaur ikusiko dugu baldintzazko esanaldia 2. Izan aditzarekin

**Lehenik ikus dezagun bale ihiztari baten kantuaren lehen kobla :**  
*Tout d'abord, voyons le couplet d'un chant qui évoque un chasseur de baleines:*

<b>Ni itsas xoria banitz</b>	<i>Si j'étais un oiseau de mer,</i>
<b>Iparreko izotz lurretarat</b>	<i>J'irais à tire d'ailes</i>
<b>Joan nintaike hegaldaka</b>	<i>Vers les terres glacées du nord</i>
<b>Bale itsu gizenen ondotik</b>	<i>A la poursuite des baleines</i>
	<i>Aveugles et grasses.</i>

Reprenons la phrase : **Itsas xoria banitz, joan ninteke bale itsu gizenen ondotik.**

**Euskaltzaindia**, l'Académie de la Langue Basque a fixé les règles grammaticales du « basque unifié » **euskara batua**. Cependant, on garde encore les formes locales de la langue, notamment dans les chansons d'autrefois.

**Euskara batuaz, horra nola aditzak erabiltzen diren** *Voici comment on emploie les verbes en basque unifié, officiel :*

**Itsas xoria banintz, joan nintzateke bale itsu gizenen ondotik**

**Horra, beraz, nola erabili behar den izan aditza baldintzazko esanaldian :**

Indikatiboa ( iraganean)	Baldintza	Ondorioa
<u>nintzen</u>	<b><u>banintz</u></b>	<b><u>nintzateke</u></b>
zen	<b><u>balitz</u></b>	<b><u>litzateke</u></b>
<b>ginen</b>	<b><u>bagina</u></b>	<b><u>ginateke</u></b>
<b>zinen</b>	<b><u>bazina</u></b>	<b><u>zinateke</u></b>
<b>zineten</b>	<b>bazinete</b>	<b>zinatekete</b>
<b><u>ziren</u></b>	<b><u>balira</u></b>	<b><u>lirateke</u></b>

#### Oharrak :

Dans la subordonnée, on emploie le préfixe **ba**, comme pour le verbe **ukan**

Dans la principale, le verbe se termine toujours par **teke**, sauf pour **zuek : zinatekete**

Concordances :

<b><u>nintzen</u></b>	=>	<b><u>banintz</u></b>	=>	<b><u>nintzateke</u></b>
<b>ginen</b>	=>	<b><u>bagina</u></b>	=>	<b><u>ginateke</u></b>
<b>zinen</b>	=>	<b><u>bazina</u></b>	=>	<b><u>zinateke</u></b>
<b>zen</b>		<b><u>balitz</u></b>	=>	<b><u>litzateke</u></b>
<b>ziren</b>		<b><u>balira</u></b>	=>	<b><u>lirateke</u></b>

**Beste ohar bat:** 3e personne du singulier et du pluriel,

à l'indicatif présent : **da, dira du, dute** lettre **d**

passé : **zen, ziren zuen, zuten** lettre **z**

au conditionnel : **balitz, balira balu, luke** lettre **l**

-----

En basque comme en français, on peut exprimer une condition à l'indicatif :

**Bihar etortzen bazira, elgarrekin**

*Si tu viens demain, nous irons ensemble*

**Donostira joanen gara.**

*à Saint Sébastien.*

On peut renforcer la condition en employant **baldin** :

**Prestuki egoten (baldin) bazara, zinemara eramanen zaitut. ( itzul ezazu : traduisez)**

*Si tu es sage, je t'emmènerai au cinéma*

L'indicatif indique des actions qui peuvent se réaliser :

**Bihar euria egiten badu, ez gara mendira joanen. ( itzul ezazu )**

*Si demain il pleut, nous n'irons pas à la montagne.*

Le conditionnel indique des actions hypothétiques :

**Optimistak erranen du :** *L'optimiste dira :*

**Loterian irabazten badut, beribil eder bat erosiko dut ( itzul ezazu )**

*Si je gagne à la loterie, j'achèterai une belle voiture.*

**Eta errealista bada, zer erranen du ?**

*Et s'il est réaliste, que dira t'il ?*

**Loterian irabazten banu, beribil eder bat erosiko nuke. ( itzul ezazu )**

*Si je gagnais à la loterie, j'achèterais une belle voiture.*

**Heldu den astean baldintzazko esnaldiak ikusiko ditugu, izan eta ukan aditzeekin.**

*La semaine prochaine nous allons revoir les verbes izan et ukan dans la phrase au conditionnel.*

**Ikasurtea bukatzeko laburki aipatuko dugu euskal mitologia.**

*Pour terminer l'année scolaire nous allons évoquer rapidement la mythologie basque.*

**Lehenik aipa ditzagun laminak.**

*Tout d'abord voyons qui étaient ceux que l'on appelle « laminak ».*

### Mitologia ( 1 )

**Ba ahal dakizue zer ziren laminak\* ? Gaztesko zitezketek hemen oro jakiteko. Lauetan\* hogoita bortz urte ditut eta nik ere zaharragoetarik ikasia dut. Laminak mixteriozko izaite batzuz ziren, ez gizon ez emazte, harrubi zilo eta leze handietan bizi zirenak. Etziren\* gauz baizik handik ateratzen. Beren bokata gauerditan egiten zuten, lerro-lerro, inguruetakoz guziak iturri bererat bildurik, ilargi xuritan. Buruzagiak bazituzten. Handienak ziren buruzagi. Bainan hauk ere gaitzeru\* batean aise\* gordeko ziren ! Etziren gaixtoak, ba haatik ohoinak, Uhaldeko harrubietan bizi zirenak bederen...**

*Savez-vous ce qu'étaient les lamina ? Vous êtes sans doute trop jeunes pour savoir tout cela. J'ai 85 ans et ce sont de plus vieux que moi qui me l'on appris. Les lamina étaient des êtres mystérieux, ni homme ni femme, qui vivaient dans des trous de carrière et dans de grandes grottes. Ils n'en sortaient que la nuit. Ils lavaient leur linge à minuit, au clair de lune, bien en rang, tous ceux des environs réunis à la même fontaine. Ils avaient des chefs; c'était les plus grands. Mais, même ceux-ci pouvaient aisément se cacher dans un boisseau ! Ils n'étaient pas méchants, mais voleurs, du moins ceux qui habitaient dans les carrières d'Uhaldia.*

**Pierre LAFITTE**

**lamina :** ce mot est généralement traduit en français par *lamie* qui désigne, de par le monde, un être fabuleux. Dans ce texte, le lamina a l'aspect d'un nain, mais dans la plupart des contes du Pays Basque, ce mot désigne une jeune femme très belle. Nous en reparlerons.

**lauetan hogoi** ou **laurogei :** 80.

**etziren :** il s'agit de **ez ziren**, tel qu'on le prononce.

**gaitzeru :** *boisseau*: ancienne mesure de capacité pour les grains.

**aise :** *facilement*. Vous devinez sans doute qu'il s'agit du mot français: *aise*. Prononcé en basque, il paraît tout à fait authentique !



- gerezi guzi horiek jaten genituen => ... gerezi guzi horiek jaten bagenitu
- Peiok irabazi zuen => ... Peiok irabazi balu
- Amaia langilea zen => ... Amaia langilea balitz

## 2. Perpaus nagusia ondorioan ezarriz, adibidez :

Euskal Herriko xapeldun izango zen => Euskal Herriko xapeldun izango litzateke.

- gurekin besta eder bat eginen zenuten => ... gurekin besta eder bat eginen zenukete.
- tripako mina ukan genuen => ... tripako mina ukanen genuke.
- interesgarria zela erranen zenuen => ... interesgarria dela erranen zenuke.
- siesta goxoki egiten nuen => ... siesta goxoki eginen nuke.
- ariketak erreki eginen zituen => ... ariketak erreki eginen lituzke.

## 3. Bi perpaus elgarrekin ezar itzazu, esanaldi logikoa eginez, adibidez :

Etortzen bazinete, gurekin besta eder bat eginen zenukete.

- Liburu hori irakurtzen bazenu, interesgarria dela erranen ...zenuke.
- Haurrak ixilik egoten balira, nik siesta goxoki eginen...nuke.
- Gerezi guzi horiek jaten bagenitu, tripako mina ukanen ...genuke.
- Peiok irabazi balu, Euskal Herriko xapeldun izanen...litzateke.
- Amaia langilea balitz, ariketak erreki eginen... lituzke.

## 4. Esanaldi horiek euskaratik frantsesera itzul itzazu :

- *Si vous veniez, vous feriez avec nous une belle fête.*
- *Si tu lisais ce livre, tu dirais qu'il est intéressant.*
- *Si nous mangions toutes ces cerises, nous aurions mal au ventre.*
- *Si les enfants se taisaient, je ferais une agréable sieste.*
- *Si Peio avait gagné, il serait champion du Pays Basque.*
- *Si Amaia était studieuse, elle ferait facilement ses exercices.*

## Oharra

Vous avez remarqué, sans doute, que le conditionnel ressemble souvent à l'imparfait de l'indicatif: **zinen, bazina genuen, bagenitu ...** Pas de **n** final au conditionnel.

Dans le langage parlé, on confond souvent conditionnel et imparfait de l'indicatif. En langage parlé, mais aussi parfois en poésie. Mais ce n'est pas parce que les poètes ne connaissent pas les règles grammaticales de **euskara batua**, mais par souci de phrases plus « légères ». Exemple, le poème de **Josean Artze**, chanté par **Mikel Laboa** : **Hegoak**

**Hegoak\* ebaki\*banizkio**

*Si je lui avais coupé les ailes*

**hegoak**, synonyme: **hegalak**

**Nerea izango zen**

*Il aurait été à moi,*

**ebaki**, synonyme **moztu** *couper*

**Ez zuen aldegingo**

*Il ne serait pas parti*

**Bainan horrela**

*Mais alors*

**Ez zen gehiago xoria izango**

*Il ne serait plus oiseau*

**Eta nik**

*Et moi*

**Xoria nuen maite.**

*C'est l'oiseau que j'aimais.*

**nerea izango zen** est évidemment plus court et plus harmonieux que **nerea izango litzateke!**

Euskal ipuinetan, lamina bi itxura  
desberdinetan agertzen da : ñaña, Pierre  
Lafitte deskribitzen duen bezala edo  
emazte gazte polit baten itxurarekin,  
hala nola, R. M. Azkue-k aipatzen  
duen ipuinean, « lamina bat ezkongai »  
Asma dezagun lamina hori, erreka  
bazterean kantariz, bere ile luzea  
apaintzen duela urrezko orraziarekin.  
Emazte humanoa dirudi, nun ez  
dituen anak erakusten...ahate anak !

*Dans les contes du Pays Basque, lamina  
apparaît sous deux aspects différents: un nain  
tel que le décrit Pierre Lafitte, ou bien une  
belle jeune femme que R. M. Azkue évoque  
dans le conte lamina ezkongai ( fiancée)  
Imaginons cette lamina qui chante, assise  
au bord d'un ruisseau, coiffant ses longs  
cheveux avec son peigne d'or.  
On dirait une femme humaine, si, du moins,  
elle ne montre pas ses pieds...qui sont des  
pattes de canard !*

### Lamina bat ezkongai

Bizkaitarrez, 1942 inguruan idatzia

Euskara batuaz

Anboto ta Arangioren bitarteko atxetan  
mutil bat artzain ibiten zan. Noizean bein  
behin  
laminak urteten eutsen. Guztiak dantza  
aidean erabilten eben. Bera pozik. Batek  
etxeragiño laguntzen eutsan ta alkarregaz  
ezkontzeko  
ezkontzeko egiunea egin eben. Lamiñak  
gomutagarritzat atxikarreen elestun bat  
ifini eustan.

Etxera badoa mutil ori ta,  
- Ama, esan eutsan etxandereari, ama, ezkondu  
edo zerbait geuk be oingotan egin bear dogu.  
- I ezkondu !! Nogaz, mutil ?  
- Neskatala eder bategaz. Basora etortzen da  
- Geiagoko barik ezkondu ?  
- Bai, ama.

Ama ori auzuneko abadeagaz itundutera yoan  
zan ta mutilari be beste ainbeste eragin eutsan.  
Oni elizgizonak emondako burubidea auxe zan :  
- Begiratuio neskatala orri anketara, ea  
zelangoak daukazan.

Mutilak urrengo egunean, emaztegeiagaz egon  
da gero, abadeagana yo ebanean,  
- Paita-ankak daukaz, esaeran,  
- Atzera emoiok elestuna, erabagi eban abadeak.  
Badoa mutila ta lamiña agertu dakonean  
elestun ori emon nai ta ezin atara ebilen.  
Azkenean atz txikia ebaki ta zapla ! yaurti eustan  
elestun ta guzi. Etxerutz etorrela atzetik yarraitu  
eutsan lagunak. Ogera yoan zan mutila ta etzan  
sekula yagi.

Anboto eta Arangioren bitarteko harkaitzetan  
mutil bat artzain ibiltzen zen. Noizean  
laminak ateratzen zitzaizkion. Guziek dantzan  
airean erabiltzen zuten. Bera pozik. Batek  
etxeraino laguntzen zuen eta elkarrekin

hitzarmena hartu zuten. Laminak  
gomutagarritzat\* hatz txikian\* eraztun bat  
ipini\* zion.

Etxera badoa mutil hori eta,  
«- Ama, esan zion etxeko andereari, ama, guk  
Oraingoan ezkondu egin behar dugu.  
- Hi\* ezkondu !! Norekin, mutil ?  
- Neskatala eder batekin. Basora\* etortzen zait.  
- Gehiagokorik gabe ezkondu ?  
- Bai, ama. »

Ama auzoko apezari galdatzera joan zitzaion eta  
Mutilari beste hain beste agindu zion.  
Elizgizonak honi eman zion burubidea haxe zen :  
« - Neskatala horri hankak begira itzaiok\* ea zein  
Motakoak daukazan\* »

Mutilak hurrengo egunean\*, emaztegaiarekin  
egon eta gero, apezarengana joan eta,  
« - Ahate-ankak dauzka, esan zuenean,  
- Atzera eman iezaioke eraztuna, erabaki zuen  
apezak. » Badoa mutila eta lamina agertu zenean,  
Eraztuna eman nahi eta ezin atera zebilen.  
Azkenean hatz txikia ebaki eta, zapla !aurtiki\*  
zion eraztuna eta guzia. Etxeruntz\* etortzen ari  
zela, lagunak jarraitzen zuen. Ohera joan zen  
Mutila eta ez zen sekulan jaiki.

RESURRECCION MARIA DE AZKUE ( 1864- 1951 )  
( EUSKAL HERRIAREN JAKINTZA )

101 ehun eta bat

gomutagarri, oroigarri *mémorable, souvenir.* hatz, behatz *doigt ou ongle.* ipini, ezarri *mettre.*

**basoa, xara, oihana** *le bois, la forêt*      **hankak begira itzaiok** *regarde ses pieds*. Tutoiement familier : **hi** *toi*.  
**ile polita dauka** *elle a une belle chevelure*. **ahate-ankak dauzka** *elle a des pieds de canard*. Il s'agit du verbe **eduki**, verbe fort, synonyme du verbe **ukan** pour exprimer la possession.  
**hurrengo, helduden astean** *la semaine prochaine*    **Hurrengo egunean, bigarramunean** *le lendemain*.  
**aurtiki, bota jeter etxeruntz joan** *aller vers la maison*.

### **Eta orain, frantsesez**

#### *Une lamina fiancée*

*Un jeune homme était berger au milieu des rochers d'Anboto et d'Arangio. ( Bizkaia eta Arabako mendi batzu)*

*De temps en temps des lamina venaient le voir. Elles dansaient toutes en le faisant voltiger. Et lui était satisfait.*

*L'une d'entre elles l'accompagnait toujours jusqu'à sa maison . Ils décidèrent de se marier. En guise de souvenir, la jeune fille lui donna une bague et la glissa à son petit doigt.*

*Il revient chez lui et dit à sa mère, la maîtresse de maison : « Ama, cettefois-ci, nous devons nous marier.*

*- Toi, te marier!! Avec qui, mon gars ?*

*- Avec une belle jeune fille. Elle vient me voir dans le bois.*

*- Tu vas te marier comme ça, sans plus?*

*- Oui, ama. »*

*Celle-ci alla consulter un prêtre du voisinage et elle demanda à son fils qu'il en fasse autant. Le prêtre lui donna ce conseil : « Tu vas regarder les pieds de la jeune fille, pour voir leur forme ».*

*Le lendemain, après avoir passé la journée aec sa fiancée, le jeune homme revint chez le prêtre et dès qu'il lui dit qu'elle avait des pieds de canard, le prêtre le conjura:*

*« - Rends-lui la bague » Le jeune homme s'en retourna et lorsqu'il aperçut la jeune fille, il voulut ôter la bague, mais rien à faire. Finalement, zapla ! il se coupa le doigt et jeta, bague et doigt à sa fiancée. Ensuite, tandis qu'il repartait chez lui, il vit que sa compagne le suivait.*

*Le jeune homme se coucha et, jamais, il ne se leva.*

-----

Elkarrizketa

Nola herritartu ? *Comment s'intégrer ?*

**Maialen AEK-ko irakaslea, Jakes euskaldun berria eta Tomas euskaldun zaharra\*.**

**Euskaldun berri :** *le nouveau basque qui a appris le basque à l'âge adulte.*

**Euskaldun zahar :** *celui qui parle le basque depuis toujours dans sa famille.*

**M. Lau urte bada gurekin euskaraz mintzatzen ari zarela. Are, murgil zaitetz euskal giroan, herritartua zara orai !**

*M. Il y a quatre ans que tu parles en basque avec nous. Allez, maintenant, plonge dans l'ambiance basque, désormais, tu es du pays.*

**J. Ez naiz oraindik trebe, herriko jendeak sobera fite mintzatzen dira, ez dut errexki ulertzen. Gainera euskara dakiten lagunak frantsesez mintzatzen dira nirekin.**

*J. Je ne suis pas encore sûr de moi, les gens du pays parlent trop vite et il m'est difficile de comprendre. De plus, mes copains qui savent le basque me parlent en français.*

**M. Oh, huts handia da hori !! Ikastaldiak egin dituzu, gurekin oso ongi ulertzen eta hitzegiten zenuen.**

*M. Oh, quelle grosse faute !!! Tu as participé à des stages de basque, tu comprenais et tu parlais très bien avec nous.*

**J. Bai zuek emeki mintzatzen zarete. Lau ikastaldi egin ditut eta joan den udan, hiru astez baserri batean egon naiz, barneko Euskal Herrian.**

*J. Oui, mais vous, vous parlez lentement. J'ai participé à quatre stages et l'été dernier j'ai passé trois semaines dans une ferme du Pays Basque intérieur.*

**M. Biba zu ! eta nola pasatu da ?**

*M. Ah, bravo! et comment ça s'est passé ?*

**J. Hastapenean zaila zen. Erraten zidaten: « Bainan zure euskara ez da egiazkoa !Gurea da hoberena !**

*J. Au début, c'était dur. On me disait : « Mais tu ne parles pas le vrai basque ! Le nôtre est le meilleur !*

**M. Ez kexa, Jakes, herri guzietan, holako hitzak entzunen dituzu.**

*M. Ne t'en fais pas, Jakes, dans tous les villages tu peux entendre la même chose.*

**J. Beste arrazo bat : Mintzatzen direlarik, hitzak jaten dituzte.**

*J. Un autre problème : Quand ils parlent ils avalent beaucoup de mots*

**M. Jaten ??**

*M. Avaler ?*

**J. Bai. « Nor tze zu »? erraten dute, nor zara J. Bai. « nor tze zu » au lieu de zu ? errateko orde. Eta zer erran nahi du : nor zare zu. Et que veut dire « gangoge »? « gangoge »?**

**M. Ah, ah,ah ! joango gare edo bagoaz .**

*M. Ah, ah, cela veut dire bagoaz, nous allons.*

**J. Ah, hori politago da !**

*J. Ah, c'est plus joli comme cela!*

- M. Bai, bainan frantsesez ere hitzak jaten dira.** *M.Oui, mais en français aussi on avale des mots. Que veut dire « ra,ra ou rasa, rasa »?*
- Zer erran nahi du, frantsesez : « ra,ra edo raza, raza » ?**
- J. Ez dakit.** *J. Je ne sais pas.*
- M. Regarde, regarde ça. Maiz entzun ditut haurrak holaxe erraten. To, horra nun heldu den Tomas, euskaldun euskalduna ! Adio Tomas.** *M. Regarde, regarde ça. J'ai souvent entendu des enfants parler ainsi. Tiens, voilà Tomas, le basque basque.*
- T. Egun on, jaun andereak.** *T. Bonjour monsieur et madame.*
- M. Huna Jakes, gure ikasle zintzoenatarik bat.** *M. Voici Jakes, l'un de nos élèves les plus sérieux.*
- T. Ah, euskara ikasten duzu ? Euskara batua, dudarik gabe. Zuen euskara batu aspergarri hori !** *T. Ah, vous apprenez le basque? Le basque unifié sans doute. Vous nous agacez avec votre basque unifié !*
- M. Ez erran holakorik !** *M. Ne dis pas cela !*
- T. Ah, ez ? Ainara, lau urteko alabasoak ere T. euskara batua ikasten du. Joan den aldian, abionak Biarritzen ikusi nituela erran diotelarik, berak segidan, « Aitatxi, ez da hola erraten, repris hegazkina erraten da ». Lau urtetan, haur ttar horrek behar « nau » euskara erakasi, he ???** *Ah non ? Ainara, ma petite fille de 4 ans apprend elle aussi le basque unifié. L'autre jour, lorsque je lui ai dit que j'avais vu des avions (abionak) tout de suite elle m'a « Aitatxi, il faut dire egazkinak » A 4ans il faut qu'elle m'enseigne le basque ?!!!*
- M. Bainan, Tomas, ez da « nau » erraten, erakasi dit edo daut. Ez zaitela axerretu. Ahal delarik, gauza berri bat agertzen delarik, hitz berri bat asmatzen dugu: hotzgailua, erantzungailua... Hala ere internet, informatika... tresna berri horien aipatzeko, Europa guzian hitz berak erabiltzen dira.** *M. Mais il ne faut pas dire « nau » mais dit. Nete fâche pas, Tomas. Si possible, lorsqu'un nouvel objet apparaît, on invente un mot nouveau: frigo, répondeur... Cependant, nous disons internet, informatique comme dans toute l'Europe.*
- T. Bai, bai. Ez naiz axerre, txantxetan ari nintzen. Ni ere ikasten ari naiz, nire euskara lantzen eta hobetzen.** *T. Oui, oui. Je ne suis pas fâché, je plaisantais. Moi aussi je suis en train d'apprendre, d'améliorer mon basque.*
- M. Ah, zoin ongi !!** *M. Ah, c'est bien.*
- T. Astero, Gure Irratiako « Herritartzen » emankizuna entzuten dut eta alabak Baionatik kurtsoak ekartzen dauzkit. Zer uste duzue zozoa naizela ??** *T. Toutes les semaines j'écoute l'émission « Herritartzen » à Gure Irratia et ma fille m'apporte les cours de Bayonne. Qu'est-ce que vous croyez, que je suis bête?*
- Agur lagunak. Ongi etorri, gure artean, Jakes !** *Salut les amis. Bienvenu parmi nous, Jakes! »*

- Eta orain, Xan, bukatzeko, euskal mitologia aipatzen ahal genuke hirugarren aldikotz ?
  - Horri buruz bada zer erran !
  - Bai zinez. Lau liburu aipatuko ditugu :
- Et maintenant, Xan, pour terminer, nous pourrions évoquer la mythologie pour la 3e fois?
  - A ce propos, il y a de quoi dire !
  - Oui, vraiment .Nous allons citer 4 livres.

- Légendes, récits populaires du Pays Basque. J. F. CERQUAND . Aubéron ed. Bordeaux.  
**J. F. Cerquand ( 1816- 1888 )** hezkuntza nazionalako Inspektorea zen. Nafarroa Beherea eta Zuberoako errientei eskatu ziren bil ze zaten herrian kondatzen ziren ipuinak. Gero, urbil urbiletik frantsesera itzuli behar zituzten. Eta hola, 60 ipuin bilduak izan ziren. Lan zinez interesgarria, eskerrak zor dizkiegu jende argi horiei !  
 Bilduma hori, lehen aldikotz agertu zelarik, ez zuen arrakastarik ukan. Alta, idazle frangok erabili zuten eta frantses argital-etxe handi batzuk ipuinak agertu zituzten. Bigarren aldiz, 1992an argitaratua izan da. Bestalde, Donostiako Txertoa editorialak euskarazko ipuinak argitaratu ditu 1986an.

*J. F. Cerquand, Inspecteur d'Académie demanda aux instituteurs de Basse Navarre et de Soule qu'ils recueillent auprès de la population les contes et légendes, puis qu'ils les traduisent le plus fidèlement possible.  
 De cette façon, 60 contes ont été recueillis. Une oeuvre tout à fait intéressante. Un grand merci à ces personnes clairvoyantes !  
 Le premier recueil n'a guère été divulgué, mais il a été largement utilisé, car il est à la base de nombreux contes du Pays Basque présentés par de grands éditeurs français.  
 Les textes originaux ont été réédités en 1992. En 1986, les Editions Txerto à St Sébastien ont fait paraître les textes en basque.*

- Euskal Herriaren jakintza. R. M. DE AZKUE Espasa-Calpe ed Madrid 1942  
**Ikertzaile, gizon jakintsun hori joan den astean aipatu dugu. Liburu hori euskaraz eta espainolez idatzia da.**

*La semaine dernière, nous avons déjà parlé de ce chercheur, cet érudit. Son livre est écrit en basque et en espagnol.*

- Légendes Basques J. BARBIER, P. TILLAC- en irudiekin argitaratua 1931 eta 1983an.  
 Elkar ed. euskaraz eta frantsesez. ( irudiak illustrations )

- Eta nola ez aipa J. M. BARANDIARAN ( 1889-1991 ) antropologoa, etnografoa eta ikertzailea. Comment ne pas évoquer J. M. BARANDIARAN.

Bere idazlanak espainolez, euskaraz eta frantsesez idatziak izan dira. Hiztegi bat egin du Euskal Herriko jeinu guziak aipatuz. Zerrenda luze luzea.

Ohargarria da, jeinu horietan batzuk « ahaideak » badituztela munduan zehar, hala nola: laminak, lutins, sireines, heren sugea, dragon, tartalo, cyclope...

Erran behar da betidanik ibilkariak izan direla eta « internet » tresna miresgarri hori ez izan arren, musika eta ipunak lurralde batetik bestera ibiltzen zirela.

*Ses oeuvres ont été écrites en basque, en espagnol et en français. Il a réalisé un dictionnaire où il énumère tous les génies de la mythologie basque. Une longue liste.*

*Il est intéressant de constater que parmi ces personnages, certains ont des « cousins » dans le monde entier: laminak, lutins, sireines, heren sugea, dragon, tartalo, cyclope...*

*Il faut dire que depuis toujours on parcourt le monde et la musique et les contes se sont transmis d'un pays à l'autre, bien avant qu'apparaissent le miraculeux.... internet !*

105 ehun eta bost

Ipuinetako izaitte horien artean aipa dezagun MARI, jeinuen erregina. Galdera bat berehala, ez ? Zoin da lehengoena, Euskal Herriko MARI edo Jerusalemeko MARIA SAINDUA ?

*Au milieu de tous ces personnages légendaires, apparaît MARI, la reine. Une question nous vient à l'esprit : Laquelle est la plus ancienne, MARI, celle du Pays Basque ou SAINTE MARIE de Jérusalem ?*

**Hemengoek erranen dizue MARI, bixtan da ! Jainkoak daki !**  
**Dena den, mundua sortu orduko, gizakiek, seguraski, Ama adoratu dute, joritasunaren sinboloa. Anitz tokitan emazteen gizairudiak aurkitu dituzte, lehengo jainkosak daitezke, hala nola Landesetako Brassempouy-eko anderea. Gizairudi horrek 25 000 urte ditu.**

*Ceux d'ici dirons c'est MARI? bien sûr ! Dieu seul le sait !*  
*Quoi qu'il en soit, dès que les humains ont apparu, ils ont dû adorer la Mère, le symbole de la fertilité. Dans beaucoup d'endroits on a retrouvé des statues de femmes qui évoquaient sans doute des déesses, exemple la Vénus de Brassempouy, dans les Landes. Cette statuette a 25 000 ans.*

**Gipuzkoa eta Bizkaian Barandiaran apezak « lekukotasun » anitz bildu ditu. Huna heietarik bat, Azkoitian kondatua:**

*En Gipuzkoa et en Bizkaia, l'abbé Barandiaran a recueilli de nombreux « témoignages ». Voici l'un d'entre eux raconté à Azkoitia, en Gipuzkoa.*

**« - Behin goiz-aldean, nire anaia eta aitarekin soro aldera nindoalarik Mari ikusi nuen gain behera zihoalarik, Ernio aldetik Aixkiola baserrira.**

*« - Un matin, alors que j'allais avec mon frère et mon père vers la prairie, je vis Mari qui volait bien bas. Elle venait du côté d' Ernio et se dirigeait vers la ferme Aixkiola.*

**- Su hutsa ageri zen. Bi atzapar suzko bezelakoak zituen eta jira ta bira lur ondoan zihoan. Aixkiolako gizona, halako ikuskizunaz izutu eta, zugatzetik behera erori zen »**

*- Elle apparut sous forme de flamme. Elle avait des griffes qui semblaient être de feu. et elle allait en virevoltant à ras du sol. Le maître d'Aixkiola, effrayé par ce spectacle, tomba du haut d'un arbre. »*

**Zenbat eta zenbat ipuin ez dira kondatuak izan Euskal Herrian, oraiko filma fantastikoetan agertzeko modukoak !**

*Combien d'histoires n'a-t-on pas racontées au Pays Basque, que l'on pourrait évoquer dans les films fantastiques d'aujourd'hui !*

**Hortan bukatzen ditugu gure emankizunak. Segi ezazue euskara ikasten eta gure lurraldean Herritarzen !!**

*Sur ce, nous terminons nos émissions. Continuez à apprendre le basque pour que vous soyez des nôtres en Pays Basque !*

### **Ez adiorik**

( En basque on n'aime pas dire adieu, si ce n'est pour exprimer : salut, au revoir.)

\*\*\*\*\*

106ehun eta sei

**Aurkibide** *Table des matières*

**Elkarrizketak**  
**Orrialdeak**

**Gramatika**

---

Herritartzen	bigarren ikasturtea		1
Aitzin solas			2
1. Has dezagun berrikuspena.....	IZAN aditza. NON ? NONDIK ? NORA ?		3...5
2. Berrikuspena.....	UKAN aditza. Ergatiboa. Dut. Ditut		6...8
3. Izen emaita.....	Agintaldea. Has. Hasi. Hasten. Hasiko		9...12
4. Zer ari zara ?.....	Aditz trinkoak : joan, egon, etorri, orainean eta agintaldean.		13...16
5. Bordeleko osaba Mattin.....	Nongo ? A partir de NOR : Noren? Norekin?...		17...19
6. Negua heldu da.....	Déclinaisons des noms au pluriel. La forme négative. Aditz trinkoa: jakin. Erakusleak <i>les démonstratifs</i>		20...23
7. Konta dezagun..... Eguberri on !	Zenbakiak. Zer tenoreda Zer tenoretan ? Asteko egunak. Nahi nuke.		24...27
8. Eskolan sartzean.....	Konparatiboak. Superlatiboa. Nahi eta behar. Segi dezagun. Sar gaiten		28...30
9. Urte berri on !.....	Maite zaitut. NOR ? NORK ? taula		31.. 33
10. Zertako ? .....	Zer egun da gaur ? Zertako ? <u>ko</u> atzizkia.		34...36
11. Zer erran du ?.....	Konpletiboa. <u>del</u> <u>delako</u> <u>delarik</u>		37...39
12. Badakizu zer den ?.....	Subordonnée interrogative, suffixe verbal <b>n, en.</b>		40... 42
13. Orain otsailean gaude.....	NOR ? <i>NORI</i> ? NORK ? taula <i>tableau</i>		43...46
14. Ihauteriak	NOR ? NORK? ala NOR? <i>NORI</i> ? NORK?		47...49
<b>Orai bukatu dugu joan den urteko berrikuspena</b>			
15. Zer gertatu zaizu ?.....	NOR ? <i>NORI</i> ? gertatu, gustatu aditzak		50... 52
16. Behin bazen bele bat.....	Iragana <i>le passé</i> Izan eta Ukan.		53...55
17. Zuhur-hitzak.....	Les trois moments dans le passé : Joan, joaten, joanen nintzen. Ikusi, ikusten, ikusiko nuen		56... 58
107 ehun eta zazpi			
18. Itsasoan. Ama.....	Joan, jakin iraganean.		59... 61
19. Oroimenak.....	NOR ? NORK ? iraganean taula		62... 64
20. Auzapeza ohia eta Ama .....	NOR ? <i>NORI</i> ? NORK ? iraganean (1) <i>hari haiei</i>		65... 67
21. Pettan bizikletez .....	NOR ? <i>NORI</i> ? NORK ? iraganean (2)		68... 70

22. Korrika.....	NOR ? NORI ? NORK ? iraganean, taula	71...74
23. Aprendiz berria.....	Erlatiboa <i>la subordonnée relative</i>	75... 77
24. Axeria jin zitzaion.....	NOR ? NORI ? iraganean	78...80
25. Herri-Urrats.....	Ahalezkoa <i>le potentiel</i>	81... 83
26. Gomendioak.....	Subjuntiboa, orainean	84... 86
27. Nolako aita, halako seme.....	Subjuntiboa, iraganean	87... 89
28. Nire amak baleki .....	Baldintza	90... 92
29. Fernando Amezketarra.....	Baldintzazko esanaldia, ukan aditzarekin	93...95
30. Mitologia ( 1 ) .....	Baldintzazko esanaldia, izan aditzareki	96.. 98
31. Mitologia ( 2 ).....	Baldintza eta ondorioa, berrikuspena	99...102
32. Nola herritartu. Mitologia ( 3 )		103....106
Aurkibidea <i>Table des matières</i>		107- 108

\*\*\*\*\*